

# Tuberkulosiaren aurkako borroka Gipuzkoan: erietxeak eta anbulatorioak

(The fight against tuberculosis in Gipuzkoa: hospitals  
and health centres)

Recondo Bravo, José A.

Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia. Miraconcha, 48.  
20007 Donostia

BIBLID [1989-2012 (2009), 10; 93-128]

Jaso: 2009.04.06

Onartu: 2009.09.03

---

*XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen lehen erdiraino, tuberkulosia izan zen lehen heriotza-arrazoia Gipuzkoan. Donostian, hamar hildakotik bat tuberkulosiak jota hiltzen zen. Gaixotasunari aurre egiteko, tuberkulosiaren aurkako ambulatioetan goiz detektatzean eta sendategietan isolatzean oinarritutako sistema erabiltzen zen.*

*Giltza-Hitzak: Tuberkulosia. Tisiologia. Sendategia. Anbulatorioa. Pneumotoraxa.*

*Desde finales del siglo XIX hasta la primera mitad del XX, la tuberculosis llegó a ser la primera causa de muerte en Gipuzkoa. En San Sebastián, uno de cada diez muertos fallecía por la enfermedad. Se combatía a la enfermedad con la detección precoz de los enfermos en los dispensarios antituberculosos y el aislamiento de los mismos en sanatorios.*

*Palabras Clave: Tuberculosis. Tisiólogo. Sanatorio. Dispensario. Neumotórax.*

*Depuis la fin du XIX<sup>e</sup> siècle et jusqu'à la moitié du XX<sup>e</sup>, la tuberculose était la première cause de mortalité au Gipuzkoa. À San Sebastián, un décès sur dix était provoqué par cette maladie, qui était combattue par le dépistage précoce dans les centres de santé anti-tuberculeux et l'isolement des patients dans des sanatoriums.*

*Mots Clé : Tuberculose. Phtisiologue. Sanatorium. Centre de Santé. Pneumothorax.*

## **SARRERA**

XIX. mendearen bigarren erdian eta XX.aren lehen erdian, Gipuzkoako biztanleriak ere, estatuko gainerakoak eta Europakoak bezala, tuberkulosiaren zigor beldurgarria jasan behar izan zuen. Aldi luze hartan, tuberkulosia izan zen hildako gehien eragin zuen gaixotasuna. Ez zegoen gaitzari aurre egiteko erremedio eraginkorrik eta, gainera, oso kutsakorra zen.

Gizartea beldurtuta zegoen eta ihes egiten zuen tuberkulosoengandik, izurridunak balira bezala. Familiek ezkutatu egiten zituzten euren senitarteko gaixoak.

Mediku fisiologoek hiru belaunaldiren jardun heroitsuari esker, erietxeetan egindako inbertsio handiari esker eta farmako berrien erabilerari esker, gaixotasuna menderatzea lortu zen 40ko eta 50eko hamarkadetan. Harrezkero, ikuspegi sozialetik onargarriagoak diren intzidentzia- eta hilkortasun-zifrak ditu tuberkulosiak.

### **1. JATORRIA. GAIXOTASUNAREN HEDAPENA XIX. MENDEAN**

Tuberkulosia antzinako gaixotasuna da. Gizakia bera bezain antzinakoa. Harri Aroko eskeletoetan ere aurkitu dira tuberkulosi-lesioak. Grekoek "tisis" esaten zioten kaltetuen itxura argal eta kakektikoagatik. XVII. mendean tuberkulosi-epidemiak izan ziren Europa osoan. "Izurri zuria" izena jarri zioten gaixotasunari (1).

Hala ere, gaixotasuna ez zen arazo larria izan XIX. mendearen amaiera arte. Industrializazioarekin zerikusia zuten hainbat zirkunstantziaren ondorioz, tuberkulosia benetako zigor bihurtu zen XIX. mendearen bigarren erdian Europako eta Ameriketako biztanleentzat. Tuberkulosia izan zen XIX. mendearen bigarren erdian eta XX. mendearen lehen herenean hilgarritasun handieneko gaixotasuna, sifiliaren, minbiziaren eta gainerako gaixotasun kutsakorren aurretik.

1905ean 3.000.000 lagun hil ziren Europan tuberkulosiak jota. Espainian 30.000 lagun hiltzen ziren urtero gaixotasun horren ondorioz. Tuberkulosiaren eragin eta hilkortasun-tasa handieneko probintziak honako hauek ziren: Bizkaia, Gipuzkoa, Cadiz, Sevilla eta Madril, ordena horretan (2).

Hainbat zirkunstantziak lagundu zuten gaixotasuna ugaltzen. Lehenik eta behin, langileriaren bizi-, higiene- eta lan-baldintza negargarriek. Fabriketan, 8 urtetik gorako ume, gizonen nahiz emakumeek 10 eta 12 ordu bitarteko lanaldi akigarriak egiten zituzten, batere oporraldirik gabe eta gaixotasunen aurkako, lan-istripuen aurkako edo zahartzaroaren aurkako inolako babesik gabe. Hezetasuna eta aireztapenaren eta argi naturalaren falta ohikoak ziren etxeetan nahiz lantokietan. Gizartearen beheko klaseen elikadura txarrak, soldata txikiak eta alkoholismo-tasa handiak eragindakoak, gaixotasuna hedatzen lagundu zuen.

Parisen, langileak pilatuta bizi ziren auzo osasungaitzetan tuberkulosiaren ondoriozko hilkortasun-tasa 10,4koa zen 1.000 biztanleko. Eliseoko Zelaietan, aldiz, 1,1ekoa bakarrik zen 1.000 biztanleko (2).

Azkenik, XIX. mendearen bigarren erdian Euskal Herrian izan zen inmigrazio handia izan zen Bizkaiak eta Gipuzkoak aldi hartan jasan zuten hilkortasun-tasa handiaren faktore nagusia. 1905ean, tuberkulosiagatiko 1.000 biztanleko hilkortasun-tasa 8,27koa zen Bizkaian eta 3,06koa Gipuzkoan. Nafarroan, Araban eta Espainia osoan, ordea, hilkortasun-tasa txikiagoa izan zen, 1,58koa, 1,97koa eta 2koa hurrenez hurren (3). Etorikinek, pilatuta eta baldintza penagarrietan bizitzeaz gain, beste arazo bat ere bazuten, izan ere, gaixotasunak eragin txikia zuen eskualdeetatik etortzen baitziren eta, horregatik, haien organismoek gara-tu gabe zituzten gaixotasunaren aurkako immunitate-babesak.

Osasun-arazo larri horren aurrean, ez zuten soluzio egokirik aurkitzen. Inda-rean jarraitzen zuten teoria miasmatikoak eta higienistak gaixotasun kutsako-rrer jatorria azaltzeko<sup>1</sup> (4). Tuberkulosiaren tratamenduan garrantzia ematen zitzaion “aire garbiaren kultuari”, “eguzkiaren jario mesedegarri” eta “itsas airearen gatzei”. Odoluste gehiegi egiten ziren hantura jaitzarazteko, eta libra-tzen laguntzeko eta oka eginarazteko botikak ere gehiegi erabiltzen ziren.

la aldi berean deskubritu ziren tuberkulosiaren baziloa (Koch-en baziloa 1882an), X izpiak (1896an) eta tuberkulinaren testa (1898an) eta horrek asko lagundu zuen gaixotasuna antzematen. Ordura arte gaixotasuna diagnostikatzeko zeuden baliabide bakarrak historia klinikoa eta estetoskopioa ziren (1. ird.)<sup>2</sup>. Lehenengo aldiz jakin zen pertsonak gaixoaren listuaren, eztularen eta karkaxa-ren bitartez kutsatzen zirela eta ahulenek zutela gaixotzeko arriskurik handiena: haurrek, zaharrek, gaizki elikatutakoek eta alkoholikoek. Aurrerapenak egin ziren baina.... Oraindik ez zegoen erremedio eraginkorrik!



1. ird. Esteteskopioaren eredua, 1840. urtean. urte luzetan, azterketa klinikoa eta esteteskopioa izan ziren tuberkulo-sia diagnostikatzeko tresna nagusiak. Teoria miasmatikoa, higienista eta infektiosoa kontuan hartzea eta iker-tzaileek egindako beste ohartarazpe-nen bat izan ziren sendatzeko terapia justifikatzeko erabili zen oinarri teori-koa.

---

1. Teoria miasmatikoa eta higienista infekzioen jatorri gisa. *Bakterioak edo mikroorganismoak deskubritu aurretik uste zen infekzioak eguraldi-aldaketen eta usteltzen ari ziren gorpuen jarioen ondorioz sortzen zirela, hau da, bero-, hezetasun- eta euri-boladengatik, hego-haizeagatik, aire-korronteengatik, etab. “Eguraldi-eflubio edo miasma” deiturikoak ziren (teoria miasmatikoa). Higiene eta garbitasun faltak ere infekzioak sortzen laguntzen zutela uste zen (teoria higienista).*

2. Esteteskopioa. Laennec-ek asmatu zuen 1818an. Bere gaixo tuberkulosoak auskultatzeak sortzen zion lotsa ekidin nahi zuen. Garai hartan, medikuaren belarria gaixoaren bularrean jarrita auskultatzen zen. Laennec-ek asmatutako kono-formako aparatuari esker, gaixoarekiko kontaktu fisi-koa saihestez gain, birikak sortzen zituen soinuak hobeto entzuten ziren.

Tuberkulosiaren baziloa beroarekin (100°C-tan) suntsitzen zela, eta 1.000 metrotik gora bizi zirenek gaixotasunaren eragin txikiagoa zutela egiaztatu zen (hala ere, gaur egun badakigu hori ez dela egia). “Garaierako tisi-immunitatea zen”: klima lehorrak, airearen garbitasunak, hotzak eta eguzkiak (helioterapia) organismoaren gaixotasunarekiko jarkikortasuna areagotzen zuten. Oxigeno-eskasiagatik (anoxia) globulu gorriak ugaltzeak (poliglobulia) odol-fluxua eta biriken oxigenazioa handitzen zituen. Gauza jakina zen tuberkulosiaren baziloak biriken goiko aldean pilatzen zirela gehienbat (birika-erpin edo muturretan). Germenak ihes egiten zion oxigenoari! Azkenik, gehiegizko elikadurak eta atsedanak norbanakoari gaixotasunaren aurkako borrokan lagunduko ziotela uste zen (5).

## 2. TUBERKULOSIAREN AURKAKO BORROKA: ERIETXEAK ETA ANBULATORIOAK

Horrela, bada, Europa eta Amerika tuberkulosiaren aurkako erietxe publiko eta pribatuz bete ziren. Honela sailkatzen ziren kokapenaren arabera: **garaiera handiko erietxeak, garaiera ertainekoak, itsasertzeko erietxeak eta erietxe periferikoak**. Azken horiek, hiri handien kutsatu gabeko aldirietan zeuden (5,6).

Milaka erietxe eraiki ziren arren, ez ziren nahikoa izan tuberkulosiak jotako horrenbeste gaixo zaintzeko. Horregatik, hautaketa egin behar izan zen gaixoen artean. Gaixotasunaren hasierako egoeran edo gutxi aurreratutako egoeran zeuden gaixo arinak bakarrik onartzen ziren erietxeetan. Kasurik larrienak ongintzako ospitaleetara eramaten zituzten eta gehienak euren etxeetan geratzen ziren. Horrela, sarritan, familiako kide ahulenak kutsatzen zituzten: gaixotasuna-



2. ird. San Antonio Abad ospitalea. Iturria: Fototeka Kutxa.

ren aurkako babes edo immunitaterik garatu ez zuten adin txikiko haurrak hain zuzen ere.

Erietxeko bizimodua erabat araututa zegoen. Eguneroko ekintza bakoitzak kontrol zorrotza zuen. Hemeretzigarren mendeko mentalitatearen arabera, helburu higienikoez eta agindu moralak nahasten ziren. Sexu-bereizketa zorrotza zegoen. Tabakoa eta edariak debekatuta zeuden. Baita jokoa eta irteerak ere. Bisitak zorroztasunez kontrolatzen ziren (2. ird.).

Ospitaleratutako gaixoak, gehienak gazteak, behartuta zeuden luzaroan sexu bereko beste gaixo batzuekin batera bizitzera. Ezartzen zieten kontrol zorrotzetik ihes egiteko alkoholean bilatzen zuten ihesbidea, zakarrak bihurtzen ziren eta ihes egiten ahalegintzen ziren. Jokabide hori gaixotasunaren ezaugarri gisa deskribatzen zuten mediku batzuek.

Erietxeak, pixkanaka-pixkanaka, teknika eta tratamendu kirurgikoak sartzen joan ziren eta, horrela, **toraxeko gaixotasunen ospitale handi** bilakatuz joan ziren (6,7). Kirurgiako teknika guztien printzipioa **kolapsoterapia** edo birikako lesioa-tutako zona immobilizatzea zen. Horrela, tuberkulosi-fokuaren hazkundera moteldu eta organismoko beste zona batzuetara zabaltzea saihesten zen. Tuberkulosiaren baziloak, ugaltzeko, birika-ehunak oxigenoa izatea behar du. Immobilizazioarekin hori ekiditen zen eta lesioa orbantzen laguntzen zen. Gainera, are garrantzitsuagoa dena, bronkioen bitartez gaixotasuna biriketako beste zona batzuetara zabaltzea eta odolaren bitartez gorputzeko beste organo batzuetara hedatzea ekiditen zen.

Kolapsoterapiako prozedura sinpleena pneumotorax edo pleura barruko gas-kolapsoa zen, hau da, birika kolapsatuta eta immobilizatuta edukitzeko pleura arteko espazioan airea injektatzea. Batzuetan, lesioa birikaren beheko aldean edo oinarrian zegoenean, pneumoperitoneoa egiten zen. Abdomeneko barrunbean airea injektatzen zen diafragma igo eta birikaren oinarria kolapsatzeko. Teknika horiek ez ziren traumatikoak eta kontrol fluoroskopikoarekin egiten ziren, operazio-gelatik kanpo. Oso ohiko konplikazioa ez bazen ere, gas-enbolia eragin zezakeen, odol-hodi batean oharkabean airea sartuta.

Teknika sinple horiek huts egiten bazuten, operazio-gelan egiten ziren kirurgjiako prozeduretara jotzen zen, esaterako, **torakoplastiara**. Teknika mutilatzailea eta konplikazio larriak izan zitzaakeena zen. Birikak atzera egin zezan, hainbat saihets-hezur erauztea zen, azken finean, torokoplastia. Horrela, tuberkulosi-fokuak ez zuen oxigenorik hartzen eta "lo" geratzen zen. Atzeratutako birikaren eta toraxeko hormaren arteko espazioa material geldo batez betetzen zen ("plombage" edo "pimponage"); gehienetan polietilenoazko esferez osatutako materiala izaten zen. Ebakuntza ondoko infekzioa zen konplikazio ohikoena eta, antibiotikoak asmatu aurretik gertaera hori oso gauza larria zenez, kasu asko heriotzan amaitzen ziren. Geroago, 50eko hamarkadaren inguruan, ebakuntza konplexuagoak egin ahal izan ziren, esaterako, birikaren zati baten edo gingilaren erauzketa ("lobektomia") edo birika osoaren erauzketa ("pneumonektomia").

Erietxeetan tuberkuloso guztientzat lekurik ez zegoenez **tuberkulosoen aurkako sorostoki edo artategiak** ireki ziren. Antzemate-, prebentzio-, hezkuntza-, sorospen- eta sendatze-lanak egiten zituzten gaixoekin. “Higiene asko, janari onak eta botika gutxi” zen sorostoki horien guztien leloa. Kontsulta-gelak eta X izpien gela zeuzkaten, eta baita analisi eta mikrobiologiako laborategia ere.

Artategiak oso garrantzitsuak izan ziren gaixotasunaren intzidentziak hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan izan zuen beherakadan. Zoritxarrez, “BCG txertoa” edo tuberkulosiaren kontrako txertoa gerora iritsi zen Espainiara, 1931n hain zuzen ere. Zoritxarrez, garai hartako gobernu errepublikanoak, jaioberriak txertatzeko denbora bakarrik izan zuen, arrisku handieneko kolektiboa, alegia.

Gerra zibilak eta gerraosteak pikutara bidali zuten tuberkulosiaren aurkako borrokan lortutakoaren parte handi bat. Gerra zibilean eta gerraostean gaixotasunak intzidentzia eta hilkortasun handiagoak izan zituen Espainian, 1947an 37.000 hildakora iritsi zelarik. Berrogeita hamarreko hamarkadatik aurrera hartu zuen beheranzko joera gaixotasunaren intzidentziak (8). 1950ean, tuberkulosiaren ondorioz 27.000 lagun soilik hil ziren. 1953rako, Tuberkulosiaren aurkako Patronatu Nazionalak artategien sare trinkoa osatzea lortu zuen Estatu osoan. Artategien sare horren bitartez, gaixotasuna antzemateko, prebenitzeko eta gaixotasunaren profilaxirako kanpaina masiboak antolatu ziren. Biztanle guztiak hartzen zituzten ekimenak ziren. Biztanle guztiei egin zitzaizkien tuberkulinarren testa, BCG txertoa ere eman zitzaizkien eta karkaxaren analisia eta fotosekzioa (fluorokopiako aparatuen pantailatik lortutako irudien argazkiak) egin zitzaizkien.

Tuberkulosiaren kontrako antibiotiko espezifikoak edo tuberkulostatikoak 1945. urtean agertu ziren nazioarteko merkatuan. Hala ere, Espainian ez ziren 1955 arte merkaturatu. Eta denboraldi horretan, gure herrialde gaixo tuberkuloso gutxi batzuek bakarrik izan zuten botika horiek hartzeko aukera. Dirua zutenak izaten ziren, noski, “entxuferen” bat zutenak, edo baita biak batera ere.

### **3. TUBERKULOSIA GIPUZKOAN: OSPITALEAK, ERIETXEAK ETA ARTATEGIAK**

Erdi Aroan Gipuzkoan zeuden ospitale eta umezurtz-etxe kontaezinak desagertzen joan ziren. Edo, gutxienez, ospitale-izaera galtzen joan ziren eta ongintza-funtzioei bakarrik eutsi zieten. 1852an lau ospitale bakarrik zeuden probintzian. “Sorospen Etxe” edo eskualdeko ospitale maila zuten. Lau ospitale horiek Donostian, Tolosan, Azpeitian eta Bergaran zeuden.

Ospitaleetako jardueraren gero eta kostu handiagoa izan zen Bergarako eta Azpeitiko ospitaleak desagertzearen arrazoia. Eibar eta Irungo biztanle kopuruak, aldiz, asko handitu ziren garai haietan eta ospitale bana sortu zen herri horietako bakoitzean (9).

Probintzian, 1923tik 1927rako aldirian, gaixoen 275.139 egonaldi izan ziren Donostia, Irun eta Tolosako ospitaleetan (9). Honela banatzen dira egonaldiak:

%85 Donostiako San Antonio Abad ospitalean, %10 Irungo ospitalean eta, azkenik, gaixoen %6 Tolosako ospitalean.

1901ean, Gipuzkoan eta Bizkaian zegoen tuberkulosiagatiko hilkortasun-tasarik handiena (Mújica). Urte hartan 400 pertsona hil ziren Gipuzkoan tuberkulosiak jota eta 1.086 Bizkaian. Ez dago esan beharrik gaixotasuna zuten pertsonak askoz gehiago zirela.

Gaixo tuberkulosoak beste gaixo kutsakor guztiekin batera nahastuta jartzen ziren Donostia, Tolosa, Irun eta Eibarko ospitaletako infekzioen gela orokorretan. Geroago sortu ziren soilik tuberkulosoentzako jarritako pabiloiak, 1920 inguruan. Eibarko eta Donostiako ospitaleetan tuberkulosoentzako bi pabiloi izan zituzten, bakoitza 40 oherekin. Tolosan 20 ohez hornitutako pabiloia izan zuten Yurreamendiko erruki-etxean (9, 10, 11).

### **3.1. San Antonio Abad ospitalea eta Nuestra Señora de las Mercedes erietxea**

Donostiako ospitalea, San Antonio Abad ospitalea, Manteon zegoen, gaur egungo Okendo etxearen inguruan, eta horixe zen Gipuzkoako ospitalerik garrantzitsuen (10).

1886an eraiki zen (3. ird.). Hasiera-hasieratik, kirurgia-instalazio modernoak eta oso kirurgialari onak izan zituen. Gaixo dirudun asko, hiriburukoak eta pro-



3. ird. Nuestra Señora de las Mercedes erietxea Loiola auzoan. Eraikinaren gaur egungo egoera.

bintziakoak ez ezik, baita beste eskualde batzuetakoak ere, ospitalean operatzen zituzten modu pribatuan. Erruki-etxea ospitaleari itsatsita zegoen. Lehenago beste erruki-etxe bat egon zen San Martin auzoan. Aipatutako bi zentro horiek, ospitalea eta erruki-etxea, umeentzako Ubako egoitzaz gain, ziren udalaren ongintza-establezimenduak. Hirurek administrazio komuna zuten, modu autonomoan funtzionatzen bazuten ere.

1912an inauguratu zen tuberkulosoentzako Donostiako lehen erietxea (10, 12). Nuestra Señora de las Mercedes erietxea zen. Loiolan zegoen Ubako Andre Mariaren ermitatik hurbil kokatua zegoen. Donostian jaiotakoak ziren eta tuberkulosia hasierako etapan zuten gaixoak bakarrik onartzen zituzten bertan. Erietxeak bizitza ilauna, iragankorra eta jarduera gutxikoa izan zuten hasiera-hasieratik, bere diru-baliabideen eskasiagatik. Ireki eta hamar urtera erietxe gisa funtzionatzeari utzi zion. “Tuberkulosiari Aurrea hartzeko Zentro” gisa erabili zen gero, aurretuberkulosi-egoeran zeuden haurrentzako. Garai hartan uste zen, uste hori okerra bazen ere, gaixo itxurako haur zurbil eta argaletan tuberkulosia egoera sorrean zegoela eta ume horiek gero gaitza garatuko zutela. Aurretuberkulosi-egoeran zeudela uste zen eta, horregatik, beraientzat bereziki diseinatutako establezimenduetara eramaten zituzten. Nuestra Señora de las Mercedes aurretuberkulosoentzako erietxea ospitale militar gisa egokitu zen gerra zibilean. Hantxe lan egingo zuen ordurako ospetsua zen barne-medikuntzako Jimenez Diaz irakasleak. Gero, ezaguna izan zen Madrilgo “Jiménez Díaz ospitalea” sortuko zuen. Madril errepublikanotik ihes egin zuen Donostian babesteko, Madrilgo eta Bartzelonako beste mediku ospetsu askok egin zuten bezala<sup>3</sup>.

Probintziak 1933 arte itxaron behar izan zuen tuberkulosiaren kontrako erietxe propioa izateko. Donostiak bazuen bere erietxea, baina probintziaren enparauak ez. 1933an inauguratu zen “**Victoria Eugenia erizaindegia**” edo **Tuberkulosiaren kontrako Andazarrateko erietxea** (9, 13). Garai hartan bertan, beste erietxe gipuzkoar bat sortu zen Errioxan ume aurretuberkulosoentzako, Ribabellosa herrian hain zuten ere.

Ordura arte, probintziako tuberkulosoek Tolosa eta Eibarko ospitaleetan zeuden ohe bakanak baino ez zituzten. Itxaronzerrendak amaiezinak ziren eta gaixo

---

3. Gerra zibila. Errefuxiatu medikuak Donostian. Gerrako urteetan Madril eta Bartzelonatik etorritako errefuxiatuz beteta egon zen hiria. Talde nazionala errekonozitu zuten enbaxadek ordezkari zuten Donostian. Jiménez Díaz doktoreak eta bere ikasleek, esaterako, Rof Carballok, Nuestra Señora de las Mercedes erietxean egin zuten lan eta beste mediku batzuk Osasun Institutu Nazionalaren artategietan aritu ziren. Erakunde hau garai hartan sortu zen. Bertan lan egin zuten Muyorro eta Garelli Madrilgo pediatrek, Victoriano Vallejo epidemiologoak, Gimeno eritasun benereotako espezialistak, etab. Donostian errefuxiatutako mediku haiek lan bikaina egin zuten, oso baldintza txarretan aritu ziren arren. Jimenez Diaz trabestismo politikoaren adibidea izan zen. Gerraren hasierak Madril harrapatu zuen. Ordurako bazuen ospea. Chamartingo ospitalearen agintean jarri zuten era guztietako laguntza, baliabide eta begiruneekin. Baina egun batean, seguruenik gerra Francok irabaziko zuela pentsatuta, Donostiara ihes egin zuen. Aurkakoa egin zuen Bastos Ansart kirurgialari militar eta katedradun ospetsuak. Gerra piztu zenean Madril zegoen eta bere seme-alabak Donostian uda pasatzen. Seme-alaben bila etorri zen baina zegoen kaosa eta medikuek gerrako kirurgian zuten esperientzia falta ikustean, boluntario aurkeztu zen Londres hotelean prestatutako odol-ospitalea antolatzeko. Bastos Donostian geratu zen 1936ko irailaren 13an okupatu zuten arte.



gehienak euren herrietako zahar-etxeetan sartzen ziren edo euren etxeetan geratzen ziren, gaixotasuna familiakoei kutsatzeko ia ziurtasun osoarekin.

1910etik aurrera, Donostiak bi mediku bikain izan zituen tuberkulosiaren aurkako borrokan: Castañeda eta Emiliano Eizaguirre doktoreak. Paraleloki eta lehia handiarekin egiten zuten lan biek. Bien asmoa zen Donostiako eta probintziako tuberkulosiaren aurkako borrokan aitzindari izatea. Castañeda Eizaguirre baino zertxobait zaharragoa zen eta berak eman zituen lehen urratsak. Tuberkulosiaren kontrako Lehen Kongresu Nazionalako probintziako ordezkari gisa, Donostia Tuberkulosiaren kontrako Hirugarren Kongresu Nazionalako eta Tuberkulosiaren kontrako Nazioarteko Lehen Kongresuko egoitza izateko onartzea lortu zuen. Castañeda izan zen bi gertaeren antolatzaile nagusia. Aldi berean, suhar aritu zen lanean Nuestra Señora de las Mercedes erietxearen eraikuntzan. Kongresuak 1912ko irailaren 9tik 17ra bitartean egin ziren eta arrakasta handia izan zuten. Erietxea erregeek inauguratu zuten kongresuko egunetan. Eraikina bikaina zen. Estatuko eta atzerriko biltzarkide guztiek bisitatu zuten eta miretsita geratu ziren. Castañedak izen ona hartu zuen antolatzaile eta buruzagi gisa. Haren iritziz, erietxea artategi batekin osatu behar zen. Artategiak tuberkulosi-kasu berriak antzemateko eta gaixotasuna fase aktiboan ez zuten gaixoen jarraipena eta kontrola egiteko balioko zuen. Fase aktiboa oso kutsakorra zen gaixoak baziloak izaten dituelako karkaxan. Gaixotasun aktiboa zuten gaixoak soilik ospitaleratu behar ziren (12, 13).

### **3.2. Tuberkulosiaren kontrako artategiak Donostian eta probintzian**

Kasu honetan Eizaguirrek aurea hartu zion Castañedari. 1913an, **Donostiako tuberkulosiaren kontrako lehen artategia** sortu zuen (ikusi aurrerago) udalaren laguntzarekin. Baina Castañedak ez zuen etsi eta aurrera egin zuen Donostiak beste sorostoki edo artategi bat, “bere artategia” hain zuzen ere, izateko asmoarekin. Horretarako, estatuko fondoak lortzen ahalegindu zen. Nafarroa eta Araba probintziak aurretik ari ziren lan horretan. Eizaguirrek bere asmoaren aurka egin zuen, esanaz, probintzian sortu behar zirela artategiak eta ez beste bat hiriburuan. Gainera, tuberkulosiaren kontrako borroka lekuan lekuko erakundeek (udalek, gobernu probintzialak) kudeatu eta kontrolatu behar zutela uste zuen eta ez Estatuak. Eizaguirre atera zen garaile, izan ere, hiriburuko bigarren artategia, **Tuberkulosiaren kontrako Gipuzkoako Artategi Ofiziala** izenekoa, 1934an sortu baitzen. Castañedak babestutako artategiak bizitza eta jarduera labur eta pobreak izan zituen. Arrasate kalean zegoen. Hura ireki zenerako beste artategi batzuk eraiki ziren probintziako hainbat herritan, lehenbizi, Eibarren eta Irunen eta, gero, Tolosan eta Azpeitian (9, 12).

## **4. TUBERKULOSIAREN KONTRAKO BORROKAKO IZAR HANDIA: EMILIANO EIZAGUIRRE JAUNA**

Emiliano Eizaguirre mediku bikaina zen. Bere lanbidean aurrera egiteko aukera handiak zituen arren, nahiago izan zuen bere jaioterrian, hau da, Donostian lan egitea eta tuberkulosiaren aurkako borrokan buru-belarri aritzea (12, 14). 1910ean, artean San Antonio Abad ospitaleko ordezko medikua zela, ospitaleko

zuzendaritzak tuberkulosoentzako 40 oheko pabiloia sortzeko bere ideia edo plana onartzea lortu zuen. Eizaguirrek kirurgia torazikoa egin zuen gaixo tuberkulosoetan (torakoplastiak) eta baita tuberkulosoak ez ziren gaixoetan ere (kiste hidatidikoak, pleuresia zornetsuak, birika-abzesuak, etab.), Estatu osoan atzindaria izan zen kirurgia, hain zuzen ere (12, 14). Torakoplastia kirurgia aski mutilatzailea zen eta bere arriskuak zituen. Ebakuntza ondoko infekzioak ugariak izaten ziren eta, garai hartan, antibiotikorik gabe, larriak izan zitezkeen. Hala ere, merezi zuen ebakuntza egitea. Gaixoez birika gaixoa gal zezaketen baina, trukean, bizia salbatzen zuten kasuen portzentaje handi batean.

Emilianok bere Tisiologia Eskola propioa sortu zuen ospitalean. Medikutaldeen prestakuntza bikaina jaso zuen bertan. Batzuek berarekin jarraitu zuten 1936an erbesteratu zen arte eta beste batzuk, esaterako, Paulo Recondo doktoorea, probintzian finkatu ziren eta jarduera distiratsua eta eraginkorra burutu zuten.

Honako hau zioen Paulo Recondok (14):

Udatan, medikuntzako ikastaroak eta jardunaldiak antolatzen zituen eta bikainak izan ziren. Ikastaroetan bere ikasle guztiok hartzen genuen parte. Lan handiko garaia izan zen. Gaixoak prestatzen genituen, ikasleak taldeka banatzen genituen eta esplorazioetan ikasitakoa irakasten genien. Amaieran, egindako praktikak egiaztatzeko diploma ematen zitzaizen parte-hartzaileei.

Medikuntzako Jardunaldiak osoagoak izaten ziren. Hizlari gisa Espainia osoko katedradunak etortzen ziren maisu-konferentziak ematera. Hainbat aldiz izan ziren Marañón Hernando, Covisa, Bejareno, Verdes Montenegro, Tapia eta Par-tearroyo. Bakarren batean Pío Baroja jauna ere izan zen. Jardunaldi haiek bizi handia ematen zieten Donostiari eta probintziari.

Emilianok arrakasta lortzeko dohain guztiak zituen. Oso pertsona gaitua eta ikastuna zen, bere lanbideari eskainitakoa, gogorra zen bere buruarekin eta laguntzaileekin eta zorrotza eta irakastea gogoko zuena. Antolatzaile eta hizlari bikaina zen.

Ospitaleko kuartel nagusitik, tuberkulosiaren kontrako borrokan gizartea eta agintariak kontzientziazteko propaganda-lan handia egin zuen. Konferentziak eta mitinak egiten zituen eta gaixotasunari eta bere prebentzioari buruzko liburuxkak argitaratzen zituen bere kontura (12). Hala, 1912an, "Tuberkulosiaren kontrako kartilla" izenekoa prestatu zuen, oso modu simple baina grafikoan bete beharreko zaintza higienikoak azalduz (15):

Koch-en baziloa biriketako gaixo tuberkulosoen karkaxan egoten da. Baita behi tuberkulosoen esnean ere. Tuberkuloso batek karkaxa lurrera botatzen badu, gaixotasuna kutsa dakizuke. Karkaxa lehortzean, hauts bihurtzen da, eta hauts hori arnasten baduzu, tuberkuloso bihurtzake. Tuberkuloso batek, bestealde, zapi batera botatzen badu karkaxa, bertan utziko ditu tuberkulosiaren baziloak. Beraz, ez bota karkaxa lurrera. Ez bota karkaxa zapira. Ez ukitu beste pertsona baten zapia. Zeure listuontzira bota karkaxa (tuberkuloso guztiok euren listuontzia eraman behar zutelako defendatzen zuten). Ez edan esnerik estalitako lapiko batean hiru minutuz irakiten eduki gabe.

#### **4.1. Listuontzien erabilera eta higiene arloko beste hainbat neurri**

Listuontziak erabiltzea ez zen izan Emilianoren asmakizuna. XIX. mende-amaieran eta XX.aren hasieran Europa osoan modu obsesibo eta setatien egin-dako eskaera orokorra izan zen. Herralde askotan errealtate bihurtu zen. Leku publiko eta biltoki guztietan listuontziak jartzea eskatzen zen. Listuontzien ondoren honako hau zioen kartela jartzen zen: "Debekatua dago listua lurrera botatzea". Isunak ere jarri zitzaizkien listua lurrera botatzen zutenei eta baita kartelak jartzen ez zituzten lokal-jabeei ere. Tuberkulosoek listuontzi eramangarria izan behar zuten aldean beti. Askok ez zuten horrelakorik egiten, ez zutelako nahi gizarteak baztertea eta, horregatik, udalak berak doan banatzea gomendatu zen. Listuontzien erabilera sustatzea ere aipatu zen, erabiltzen zuen tuberkuloso bakoitzari bi litro esne eta 400 gr. haragi eskainiz. Horixe gertatzen zen Bilbon 1901ean (16).

Gizarteak tuberkulosiari zion beldurrak beste neurri batzuk ekarri zituen. Ahoan muxu ematea ere debekatu egin zen, baita era guztietako pertsonei ere. Apaiz batzuek aitortzako garaian kutsatzeko beldurra zuten. Beste apaiz batzuek lasaitu egiten zituzten esanaz "ez dago beldurtzeko arrazoirik, izan ere, nahikoa da ahoa eta sudurra aitortzen ari denaren ahoaren parean ez jartzea" (16).

Elizako agintariak ere arauak xedatu zituzten fededunek kultu-objektuekin kontaktu fisikoa zuten egoeretan bete zitezen, esaterako, ur bedeinkatu ontzietan, aitorlekuetan, erlikiontzietan, irudietan, etab.

Higiene arloan beste hainbat neurri ere gomendatu eta ezarri ziren. Esaterako, zoruak eta hormak garbitzea. Zoruko tronadurako argizariak tuberkulosiaren baziloa ugaltzen laguntzen zuela uste zen. Horregatik, zoru eta hormetan erraz garbitzeko moduko eta garai hartan zeuden produktu likidoekin desinfektatzeko moduko materialak erabiltzea gomendatzen zen (hormetan baldosa jarri, zoruetan linoleoa...); zurezko tronadura kentzea ere gomendatzen zen. Urez garbitzea hobesten zen ekortzearen aurrean, hautsik harrotu ez zedin.

1901ean, joan-etorri askoren ondoren, lege bat atera zen, guztiz beharrezkoa eta oinarrizkoa eta osasun-adituek aspalditik eskatzen zutena. Lege haren ondorioz, tuberkulosi-kasuren bat antzematen zuen mediku orok jakinaren gainean jarri behar zuen. Zoritxarrez, kasu askotan, medikuek ez zuten arau hori betetzen. Beldur ziren diagnostikoan huts egin eta euren bizitza sozialean kaltetuak izaten ziren gaixoei auzitara eramango ote zituzten (16).

#### **4.2. "Lorearen jai". Eizaguirre doktorearen berrikuntza arrakastatsua**

1913an, "Lorearen jai" egin zen Donostian. Espainian egiten zen lehen aldian (gero beste hiri batzuetara zabalduta bazen ere). Tuberkulosiaren kontrako jardunaldi horrek arrakasta handia izan zuen (12). Abuztuaren 15ean egiten zen, Aste Nagusiarekin bat etorritik, hiria udatiarrez eta probintziako jendez beteta zegoen egunean, alegia. Beste hainbat ekintzaren artean, diru-biltzea egiten zen. Andereño-talde batek limosna eskatzen zieten oinezkoen tuberkulosiaren kontrako kanpainarako, urtero kolore desberdinekoa izaten zen paperezko lorea jartze-

aren truke. Papar-hegalean jartzen zen zilar koloreko edo urre koloreko eta oso modu artistikoan apaindutako orratzaren bitartez. Lore bakoitza 5 eta 25 pezeta arteko prezioan saltzen zen. Gerra garaian Gizarte jaia egiten hasi zen. Bertan dantza eta opari-zozketa izaten ziren. Opariak, gerra zela medio, hirian zeuden errefuxiatu ugariak eta baita enbaxadek ere ematen zituzten dohaintzan.

“Lorearen jaia” probintziako herri guztietara zabaldu zen eta herriko zaindariaren jai-egunean egiten zen. Lorearen jaietan 1.309.072 pezeta bildu ziren guztira 1937tik 1944ra bitartean. Kopuru garrantzitsua zen garai hartan. Eibarko erietxearen sostengurako balio izan zuen gehienbat, baina baita gainerako erietxeetan eta probintziako sorostokietan obrak egiteko ere.

#### **4.3. Emiliano Eizaguirre eta Donostiako bere artategia**

1913an tuberkulosiaren kontrako artategia sortu zuen. Hasiera batean, San Antonio Abad ospitalean bertan egon zen. Gero, San Bartolomé kalera lekualdatu zen (12). Artategia oso-oso garrantzitsua izan zen Donostian tuberkulosia ezabatzeke. Gaixotasunaren hilkortasun-tasa %64 murriztu zen Donostian 1901etik 1935era bitartean. Estatu osoan, aldiz, %43 besterik ez zen murriztu. Emiliano jarduera berritzaileak sartu zituen, esaterako, erizain bisitarien zerbitzua sortu zuen. Gaixotasunaren eraginpeko familien eta auzotarren etxebizitzan baldintza higienikoez eta bizigarritasunaz arduratzen ziren erizain haiek.

#### **4.4. Emiliano Eizaguirre. Bizitza akademikoa eta Gerra zibila**

Emiliano zientzia-artikulu eta -liburu ugari idatzi zituen, Espainian eta Latinoamerikan asko baloratu zituztenak. Gerra zibila hasi zenean, Londres hotelean Odol Ospitalea antolatu zuen Bastos irakaslearekin batera (12). Donostia hartu zutenean Argentinara erbesteratu zen. 1938ko hasieran Donostiara itzuli eta salaketak eta politika-espeditenteak zituela jakin zuen (12, 14). Odol-ospitalean izandako jokabidea, Rotary elkartekoa izatea, erlijio-sinesmenik ez izatea eta abar leporatzen zizkioten. Medikuen elkargoan, ospitalean eta beste hainbat tokitan kargu publikoak izatea debekatu zioten. Salaketa asko bere lankideek jarritakoak ziren. Antipatiak eta inbidiak bereganatu zituen. Bere nortasunaren zenbait alderdik, esaterako, bere handikeriak, indibidualismoak eta jenioak ez zioten mesederik egiten bere lankideekin zituen harremanetan. Paulo Recondok, Emiliano jaunaren ikasle bikaina izan zenak eta mediku eta irakasle gisa miretsi izan zuenak, maisuak batzuetan erakusten zuen harrokeria oso ondo laburbiltzen duen anekdota bat kontatzen zuen (14). 1929an, Paulo medikuntzako 5. mailako ikasle zela Madrilen, honako gertaera honen lekuko izan zen: Emiliano Madriler a gonbidatu zuten hainbat konferentzia ematera. Lehenengoa Jiménez Díazen katedran eman zuen. Irakasleak aurkezpen polita egin zion: “Eizaguirre doktoreak lan zientifiko bikaina egin du oso baliabide gutxiarekin. Izan ere, zientzia egiteko modu zientifikoan pentsatu behar baita”. Konferentzia aparta izan zen eta dena normal joan zen. Hurrengo egunean, bigarren konferentzia eman zuen Fakultateko anfiteatro txikian: “Tuberkulosi-lesioen tratamendua torakoplastia bidez”. Hiriburuko fisiologo ospetsu guztiak han izan ziren: Tapia, Valdés, Lambea, Carlos Dies, Verdes Montenegro, Partearroyo eta beste mediku asko.

Honako hau esan zuen denen harridurarako: jaun-andereok, lotsagarria da probintziakooi ematen diguten tratua. Egindako torakoplastia kopuruen estatistikak argitaratzen dira ni aipatu ere egin gabe, 39 eginak ditudan arren; Espainiako estatistikarik handiena eta Europako handienetarikoa.

Emiliano akademiako gizona zen. Lan edo estatistikaren bat izan bezain laster, konferentzia ematen zuen. Mediku ugari joaten ziren bere konferentzietara. Erantzun beldurgarriak ematen zituen. Ciriaco Aguirre fisiologo eibartarrarekin eztabaida izugarriak izaten zituen. Elkarri ia iseka egiteraino iristen ziren. Begiristain eta Ayestarán doktoreak bakarrik ausartzen ziren hari aurka egitera, izan ere, esperientzia eta prestakuntza handiko kirurgialariak baitziren (14).

Bere harrokeriak ez zion utzi erbestealdi laburretik itzultzean izan zituen apalkuntzak eta zitalkeriak jasaten. Minduta eta mingostasunez beteta geratu zen, eta bere lankideengandik eta baita ikasleengandik ere urrundu egin zen. Paulo Recondok dio:

Uste dut ez genuela jakin Emiliano Eizaguirre doktorearen lana bizi zen bitartean baloratzen. Ezta Gipuzkoan, horrenbeste maite izan zuen Donostian hain zuzen, jaio, borrokatu eta hil zen mediku bikain haren oroitzapena baloratzen ere.

## **5. ANDAZARRATEKO ERIETXEA EDO “VICTORIA EUGENIA ERIZAINDEGIA” (1933-1938). UZTAILAREN 18A ERIETXEA (1938-1956). PAULO RECONDO DOKTOREAREN IRUDIA**

Andazarrate edo Andrezarrateko erietxea 1933an sortu zen. Hasiera-hasieratik izan zen bere helburua probintziak zuen tuberkulosoentzako ohe-falta ikaragarria ahal zen neurrian arintzea. Gipuzkoak 100 ohe baino ez zituen San Antonio Abad ospitalearen, Tolosako erruki-etxe edo ospitalearen eta Eibarko erietxearen artean banatuta. Lehen ere aipatu dugu Nuestra Señora de las Mercedes erietxeak ez zuela funtzionatzen tuberkulosoentzako benetako ospitale gisa (9).

1925etik, gutxienez, tuberkulosiaren kontrako batzorde kudeatzaile probintzialak behin eta berriz aipatzen zuen probintziako gaixoentzako tuberkulosiaren kontrako erietxe bat izatearen premia larria. Azkenean, 1927an, Aldundiak eta Estatuak erietxea eraikitzeko konpromisoa hartu zuten. Erdibana ordainduko zuten. Hasierako aurrekontua 600.000 pezetakoa izan zen. Horretarako, lurra erosi zitzaizkien Asteasuko udalerrian kokatutako Andazarrate mendatean hainbat jaberri: Gipuzkoa eta Arabako Meatze Konpainiari<sup>4</sup>, inguruko hainbat baserri-tarri eta Asteasuko udalari berari. Hala ere, lur zatirik handiena konpainiarena

---

4. Andazarrateko meatzeak eta Mollarri uhartea. Mollarri edo Malla-Arria uhartea Talaimendi mendia inguruan dago, Zarauzko hondartzaren ekialdean. 1905etik 1923ra bitartean burdina zamatzeko eta biltegiatzeko leku gisa erabili zen. Bandera ingelesa zeramaten ontziek ainguratzen zuten uhartearen inguruan. Minerala airez iristen zen Andazarrateetik, aireko tranbia-sistema bati esker —bagonetak eramaten zituen kable elektrikoa—. Enpresa ustiatzaileak Belgikako kapitala zuen eta Aginagan zituen bulegoak. Aireko garraioak 1930ean utzi zion funtzionatzeari kamioien lehiaren ondorioz. Handik gutxira, 1932an, meatzeak itxi egin ziren. Meatzeko galerietako bat hamar bat minutura dago Andazarrateetik Iturriozko Bentara doan bidean.

zen. Konpainiaren kapitala Belgikakoa zen. Inguruko meatze edo galeria batetik ateratzen zuten burdina ustiatzen zuen. Meatzetik iturri txiki bat isurtzen zen, erietxea urez hornitzeko aprobetxatuko zena. Ustiapena errentagarria ez zenez, konpainia desegin egin zen lurrak saldu ondoren (4. ird.) (13).



4. ird. Mollarri uhartea. Andazarrateko meatzeetatik ateratako burdina zamutzen zuten itsasontziek aingura-leku bezala erabiltzen zuten.

Erietzeko lanak 1928an hasi ziren. Hasieran kalkulaturako aurrekontua ez zen nahikoa eta diru-ekarpen gehiago egin behar izan ziren. Estatuak atzeratzen joan zen ordainketetan eta horrek atzerapenak ekarri zituen lanetan. 1932an lortu zen obra amaitzea. Baina erietxea ezin izan zen ireki medikuntzako ekipamendurako fondorik ez zegoelako (X izpien gela, laborategiak, kirurgiako tresnak, etab.). Azkenean, Aldundiak jarri zituen Estatuak ordaindu beharreko azken 90.000 pezetak. Amaierako kostua 950.000 pezetakoa izan zen (13).

Erietxea 1933ko ekainaren 1ean inauguratu zen (5. eta 6. ird.). 80 ohe zituen, erdiak gizonezkoentzat eta beste erdiak emakumezkoentzat. Operazio-gela, X izpien gela, analisietarako eta mikrobiologiako gela, akurientzako gela eta abar zituen (7., 8. eta 9. ird.). Pertsonala 35 lagunek osatzen zuten, modu honetan banatuta zeudenak:



5. ird. Andazarrateko erietxea. Iturria: Fototeka Kutxa.



6. ird. Andazarrateko erietxea eta lorategiak. Iturria: Fototeka Kutxa.



7. ird. Emakumeen galeria. Iturria: Fototeka Kutxa.

“Y” forma zuen. Gaixoen gelak “Y”-aren adarretan zeuden kokatuak. Ezkerreko besoan gizonezkoak egoten ziren. Eraikinaren atzean kokatutako bi txaletetan bizi ziren langileak. Ezkerrekoan mediku eta praktikanteak. Eskuineko txaleta gainerako laguntzaileena zen.

Erietxeak gizonezko nahiz emakumezkoak hartu zituen 1942 arte. Urte hartatik aurrera emakumezkoak Donostiako Nuestra Señora de las Mercedes erietxean (Loiola auzoan) ospitaleratu ziren.



8. ird.  
Emakumeen  
gelak. Iturria:  
Fototeka Kutxa.



9. ird.  
Gizonezkoen  
galeria. Iturria:  
Fototeka Kutxa.




Sexuen bereizketa zorrotza zegoen. Dohaintza partikular baten bitartez esku-ratutako irrati-aparatuak eta irakurketak laguntzen zuten eguneroko monotonia gainditzen

Operazio-gelaren jatorrizko instalazioa simplea izan zen. Pneumotorax tera-  
peutikoa X izpien gelan egiten zen erradioskopia-kontrolpean. Torakoplastiako  
kirurgia operazio-gelan egiten zen. Kirurgia baldintza gogorretan egiten zen.  
1952 arte ez zen izan ez arauzko anestesiarik ez antibiotikorik.



10. ird.  
Operazio-gela.  
Iturria: Fototeka  
Kutxa.



11. ird. X izpien  
gela. Erradio-  
grafiak egiteko  
aparatuak 40ko  
hamarkadan.  
Iturria: Fototeka  
Kutxa.



12. ird. Anlisi eta mikrobiologiako laborategia. Iturria: Fototeka Kutxa.

Bertan anlisiak egiteko laborategia, mikrobiologiako gela, mikroskopiaarekin eta akurien gela zeuden.

Tisiologian espezializatutako bi mediku, Paulo Recondo eta San Emeterio, 2 praktikante, Abilio Vazquez eta Luis Alzua (13. ird.), 14 mesedetako ahizpa (14. ird.), kaperau bat, 3 morroi, 3 neskame, ile-apaintzaile bat, dentista bat, mekaniko bat, mekaniko laguntzaile bat, langile bat, 2 idazkari, atezain bat. Paulo Recondo bitarteko zuzendaria zen (13).

Hasieran, erizain lana egiten zuten mesedetako ordenako 14 lekaima egon ziren. 50eko hamarkadan erizain sekular diplomatuak gehitu ziren.

Errepublika garaia zen eta, artean, konstituzio laikoa zen nagusi. Eliza eta estatua berezita zeuden. Protestak ere izan ziren erizainen tokian mojak erabil-tzeagatik. Liga Antiklerikal Iraultzaileak protestako idatzia bidali zion batzorde kudeatzaileari, honako eskaera honekin: “karitateko ahizpak deituriko propa-gandagile konfesionalen zerbitzuari uko egiteko eta haien tokian erizain titula-tuak jartzeko” (13).

Hasiera-hasieratik hasi zen ospitalea bere osotasunean funtzionatzen. Gai-xoak probintziako herri guztietatik joaten ziren, Donostiatik, Eibartik eta Elgoi-



13. ird. Medikuak eta praktikanteak. Eserita, ezkerretik eskuinera: Alzua, Abilio Vazquez eta San Emeterio. Atzean, zutik, Paulo Recondo. Iturria: Fototeka Kutxa.



14. ird. Mesedetako lekaimea. Iturria: Fototeka Kutxa.

bartik izan ezik, herri horiek euren erietxeak baitzituzten. Premia izugarria zen eta 1935ean obrak egin behar izan ziren ohe kopurua 100era handitzeko (13).

Gaixoen ingresuak izena emandako ordena zorrotzean egiten ziren. Harrera-bulegoa Aldundiaren beheko solairuan zegoen. Itxaronzerrenda luzea izaten zen. Ohe bat libre geratzen zenean egunkarian iragartzen zen. Gaixo bat onartzeko hainbat ziurtagiri eskatzen ziren: gaixoaren herriko alkatearena, gaixoaren pobrezia-maila adierazten zuena eta gaixoaren historiala adierazten zuen medikuaren idatzia, toraxeko erradiografiarekin batera. Urgentziatzko kasuetan tuberkulosiaren kontrako sorostokitik zuzenean ere egin zitekeen ospitaleratzea. Gaixo behartsuen egonaldiak euren udalek ordaintzen zituzten. Aldundiak aurreratzen zuen dirua eta gero udalari kobratzen zion. Formula hori aldi batez erabili zen baina, gero, Aldundiak udalen aurrekontuaren %2 hartzen zuen osasun- eta ongintza-gastuetarako. Probintziakoak ez ziren gaixoen gastuak Estatuak ordaintzen zituen. Estatuak ohe- en %30 beretzat erreserbatzen zuen. Lehen urtean, egonaldien ordainketa 11,6 pezeta/egunekoa izan zen, baina gero 9 pezetara jaitsi zen eguneko (13).

### **5.1. Gaixoen bizimodua erietxean**

Egonaldien iraupena, logikoa den bezala, gaixoaren egoeraren eta bere medikuaren baitan zegoen. Medikuak erabakitzen zuen aldi noiz eman. Hala ere, gaixoaren egonaldia 6 hilabetetik gorakoa zenean, medikuak tuberkulosiaren kontrako batzorde kudeatzaileari jakinarazi behar izaten zion. Egonaldiek, oro har, urtebete edo bi urte irauten zuten. Batzuetan baita hiru urte ere. 1952-1953tik aurrera antibiotikoak erabiltzen hasi ziren eta egonaldiak laburtu egin ziren, 6 eta 9 hilabete artekoak izateraino.

Atsedean, aire eta eguzki bidezko sendabideak eta elikadura ona (hiperkalorikoa eta hiperproteikoa) funtsezkoak iren tratamenduaren barruan. Otordu guttietan izaten zen bakailao-gibel olio koilarakada bat. Sendagai gisa "kaltzitoterapia" erabili zen, hau da, benabarnetik sartutako C bitaminadun kaltzio-injekzioak. Kaltzioak lesioa orbantzen laguntzen zuela uste zen. Aldi batez, urte-gatzak ere erabili ziren baina aurki baztertu ziren ondorio mesedegarririk ez zutela ikustean. Kasu gehienetan pneumotoraxarekin osatzen zen tratamendua. Pneumotorax teknika astero errepikatu behar izaten zen, anestesia lokalarekin eta kontrol fluroskopikoarekin egiten zelarik. Batzuetan torakoplastia ere egiten zen. 1951tik aurrera sarriago egin ahal izan zen, penizilina, estreptomizina eta PAS antibiotikoak eskura izan zirenean (17).

Gaixoentzako informazio-eskuliburua oso argia zen: tuberkulosia sendatzeko modurik onena atsedean hartzea da. Atsedeen onena ohean ahalik eta denbora gehien egotea da, ahal den neurrian ez tulik egin gabe, asko hitz egin gabe eta mugimendu zakarrrik egin gabe. Oheko erabateko atsedendialdiak hainbat hilabete irauten zuen, karkaxa, eztula eta gainerako sintomak desagertzen ziren arte. Atsedendialdiaren ondoren, gaixoak gauza gehiago egin zitzaizkeen, hala nola, ohean eseri, irakurri, idatzi, bisitak hartu, entretenitzeko eskulan txikiak egin, etab. Gero, komunera joaten, terrazara joaten, jangelara joaten eta beste hainbat gauza egiten uzten zitzaion gaixoari. Azkenean, lorategira jaitsi eta egunean ordube-

tez edo bi orduz paseatzeko baimena izaten zuen. Gaixo bakoitzak bere historia klinikoa idatzita izaten zuen atsedent-tratamendua zein unetan zegoen. Pautak zorrotzasunez betetzen ziren, kartzela-diziplinarekin esan genezake (17).

Gaixo guztiek ohean egon behar zuten goizeko hamarrak arte eta bazkaldu ondoren ordu batetik arratsaldeko hirurak arte. Atsedendia elikadura oparoarekin osatzen zen. Gehiago zirudien bost izarreko hoteleko janaria. Egia esan, erietxean oso ondo jaten zen. Erietxeko kamionetak egunero ekartzen zituen Donostiatik janari freskoak. Zenbait produktu, esaterako, esnea, babarrunak eta berdura Etxebitarte baserri-tabernan erosten ziren. Otorduetan beti izaten zen bakailao-gibel olio koilarakada bat. Aire garbiarekin, eguzkiarekin eta gelaren etengabeko aireztapenarekin osatzen zen tratamendua. Gainera, gaixoak ez hozteko moduan janzen ziren eta aire-korronteak saihesten zituzten (lekukoak).

1936an, Gipuzkoako borroka armatuaren ondorioz, udalek eta Estatuak ez zuten batere diru-ekarpenik egin. Erietxeak gosea eta estutasuna jasan zituen.

## 5.2. Andazarrateko erietxea eta Gerra zibila

1936ko abuztuaren 11n Tolosa hartu ondoren, Oria bailarako gainerako herriak hartu zituzten frankistek. Hala ere, bailarako eskuin ibaiertzeko gailurrak errepublikanoen eskuetan geratu ziren. Abuztuaren 27an Asteasu hartu zuten (18).

Irailaren 17an, Donostia eta probintziaren ekialde gutzia konkistatu ondoren, eraso orokorra egitea erabaki zen probintziaren erdialdea okupatzeko asmoz. Cayuelak Asteasun eta Zizurkilen pilatu zituen tropak. Pagoeta, Santa Marina, Iruñe-Andazarrate eta Zarateko Bentaren inguruan kokatutako indar errepublikanoei eraso zieten. Indar leialak Santa Marinako ermitan hartu zuten euren gotorlekua. Cayuelaren gurdiek igaro beharreko bidea ikusmenean zuen muino batean zegoen kokatua ermita. Borrokaldi gogorrak izan ziren. Matxinatuek 19 gizon galdu zituzten baina, azkenean, Santa Marina hartu zuten, irailaren 19an. Santa Marina hartu ondoren fronte gutzia gainbehera etorri zen. Errepublikanoek euren posizioak utzi behar izan zituzten zapaldu ez zitzaten. Latorrek Aia hartu zuten eta Zarautz babesik geratu zen, bere oinetan, urrats batera (18) (15. eta 16. ird.).



15. ird. Zonako mapa. Iturria: Fototeka Kutxa.



16. ird. Soldadu errepublikanoak, Andazarrateko gaina defendatuz.

Paulo Recondok bere seme-alabei kontatu zien zein modu bortitzean sartu ziren erreketek erietxean (Recondo familiaren lekukotasuna). Matxinatuak mendate-gainera iritsi zirenean, Paulo eta bere laguntzaile praktikanteak zain zituzten establezimenduaren sarreran. Erietxean sartu aurretik armak uzteko eskatu zien Paulok, milizianoek egiten zuten bezala. Inozo halakoa! Armak utzi ordez, pistola batez destatu eta honako hau aurpegiratu zion ofizial erreketearekin topo egin zuen Paulok: Zu al zara Alzua? Ezetz erantzun zionean, modu zakarrean baztertu zuen eta barrura sartu zen bere taldearekin. Areto eta gela guztietatik igaro ziren gaixo guztien sorbaldak aztertuz, gaixo-plantak egiten ari ziren zaurituak baziren ere. Erietxetik hurbil meatzeko galeria bat zegoen. Han ezkutatu ziren Alzua eta beste zaurituren bat ihes egin zuten arte.

Izaskun Etxetxipiak Juanito bere aitak izandako esperientzia kontatzen digu. 1936. urtean tuberkulosia harrapatu zuen. Eta Andazarraten ospitaleratu zuten, Paulo Recondo doktoreak torakoplastia bat egin ziezaion. Gerra garai hartan giroa oso nahasia zegoen. Soldadu matxinatuek bisita guztiak kontrolatzen zituzten. Juanito bezalako gaixoak, ideologia abertzalekoak zirenak, soldadu baten etengabeko zaintzapean zeuden, zaintzaileak fusila eskuetan hartu eta ez baitzuen gaixoaren oheburutik alde egiten. Militarrek saiatzen ziren botikak “erregimeneko” gaixoei eman ziezazkieten, gainerako gaixoen kaltetan bazen ere. Juanitok, hala ere, sendatzea lortu zuen eta bere osasun eta bizitasun izugarriari esker 80 urte bete artean igandero Uzturre mendira igotzeko modua izan zuen. Garai hartan sortu zitzaion Paulo Recondorenganako zuen miresmena, handik urte batzuetara Tolosan omenaldi handia egin zitzaionean ederki asko erakutsi zuena. Juanito pertsona apala zen, ikasketa gutxikoa, baina hala ere Tolosako herri osoa mobilizatu zuen omenaldi bikainaren antolatzailea izan zen.




### 5.3. Tuberkulosiaren kontrako Patronatu Nazionala. “Uztailaren 18a” erietxea

1938an, Tuberkulosiaren kontrako Patronatu Nazional (TPN) sortu berriak hartu zuen tuberkulosiaren kontrako osasun-instalazio guztien ardura. Andazarrate eta Eibarko tuberkulosiaren kontrako erietxeei “Uztailaren 18a” erietxea eta “Nueva España” erietxea izenak jarri zizkieten, hurrenez hurren. Bigarrenak 44 ohe zituen eta 1942an itxi egin zuten. Erietxea ondo hornituta zegoen eta eibartarrek mantendu egin nahi zuten. Gehiago irauin zezakeen baina, bere tamaina txikiagatik, ez zen errentagarria. Garai hartako joera erietxe handiagoak izatekoa zen, 300 eta 500 ohe bitartekoak. Eibarko erietxea ume aurretuberkulosoentzako “Haurrentzako Prebentzio Zentro” bihurtu zuten, gaixo ez egon arren gaixo itxura zuten umeentzako, alegia (19).

Eibarko erietxeko ekipamendua 1942ko maiatzaren 2an berriro irekiko zen Nuestra Señora de las Mercedes erietxe berriaren hornidura osatzeko aprobeztatu zen. Emakume tuberkulosoentzakoak soilik ziren 100 ohe zituen. Hasieran, 50 gaixo Andazarrateko erietxetik etorri ziren eta gainerakoak Eibarko erietxetik iritsitakoak eta leku zain zeuden gaixoen zerrenda luzekoak ziren (19).

### 5.4. Andazarrateko erietxearen egitura-arazoak. 1956an itxi egin zen

Andazarrateko erietxeak oso funtzio garrantzitsua eta eraginkorra betetzen zuten. Baina bazituen desabantaila batzuk ere eta, horregatik, TPNk aldiro-aldiro planteatzen zuen erietxea ixtea. Mendate batean kokatuta zegoen, 460 m-ko garaieran eta ipar-mendebaldeko haizeen eraginpean. Horregatik, leku hotz,



17. ird. Andazarrateko landa 2000. urtean. Ez dago erietxearen aztarnarik.



18. ird. 2005ean jarritako monolito oroigarria.

heze eta zikin samarra bihurtu zen erietxea. Eraikitzeko erabilitako materialak kalitate handikoak ez zirenez eta eraikina finkatuta zegoen lur-saila ezegonkorra zenez, maiz izaten ziren luiziak eta horma-erorketak. Eraikina mantentzea garestia zen. Ur-hornidura ez zen oso ona. Udan ur-eskasia izaten zen. Gainera, uraren edangarritasuna zalantzan jartzeko modukoa zen. Horregatik guztiagatik, TPNk erietxea itxi nahi zuen, baina hango oheak behar-beharrezkoak ziren. Ezin zen inolaz ere hura itxi beste erietxe bat eraiki baino lehen. Kontua zen baliabiderik ez zegoela. Erietxea ixteko aukera 1952an iritsi zen, **Amarako Torax Ospitalea** eraikitzeko lanak erabat amaitu zirenean (13, 19). Andazarrateko erietxea beste hainbat urtez egon zen martxan, 1956ko martxora arte. Asteasuko erregistro zibilean aurkituko dugu tuberkulosiaren ondorioz hildako azken gaixoaren data,...

Erietxea itxi ondoren, eraikinaren zati bat auzoko udal-eskola gisa erabili zen. Azkenik, 1990ean eraitsi zuten eraikina. 2005ean erietxearen inaugurazioaren 79. urteurrenaren oroigarritzko jaieguna egin zen eta monolito oroigarria jarri zen garai batean eraikina zegoen zelaian (17. eta 18. ird.).

### 5.5. Giza lekukotasunak

Maria Luisa Irastorzak Andazarrateko bere emanaldiaren berri eman digu (19. ird.). 1948ko uztailan, 12 urte zituela, Tolosako ekintza katolikoko elkarte-





19. ird. 1948ko uztaila. Tolosako Maria Luisa Irastorza soinu-jolea erietxe-ko lorategi-tan, Tolosako ekintza katolikoko elkartearekin batera egindako bisitaldian.

ak antolatuta, erietxea urtero bisitatzen zuen animazio-talde bati lagundu zion eskusoinuarekin.

Aretoan jo nuen. Gogoan dut eszenategi bat zegoela eta txalo ugari jo zidatela. Ohean zeudelako, entzun bai baina ikusi ezin izan ninduten gaixoeak, geletara igotzeko eskatu zidaten. Nire musika zuzenean entzun nahi zuten eta ni ezagutu nahi ninduten. Gelaz gela joan nintzen nire eskusoinuarekin. Gaixoenengan sortzen nuen pozak eta haien esker onak zoriontsu egiten ninduten. Oso polita zen dena, konketa batera ahotik odola botatzen ari zen mutil gazte bat ikusi nuen arte. Hura oso gogorra izan zen eta zorabiatu egin nintzen. Berehala atera ninduten kanpoko lorategi ederretara. Han, bankuan eserita eta zebilen haize leunari esker, zorabioa pasatzen joan zitzaidan. Kokozko gailetak eman zizkidaten eta edateko zerbait, baina nire eskrupuluekin ezin izan nituen jan. Gertaera hori alde batera utzita, bisitaldiaren oroitzapen atsegina dut. Paulo Recondo doktorearen zuzendaritzapean tratamenduan zeuden gaixoak zoriontsu eta alai zeudela zirudien. Erietxearen kokapena aparta zen, isolatuta eta aire garbi-garbiarekin. Ikuspegiak ere zoragarriak ziren eta mesede egingen zien gaixoei.

Manuel Aizpurua, 77 urtekoa, Zumaian jaioa eta Aiako parrokoa. 40ko eta 50eko hamarkadetan herriko ekintza katolikoko elkartekoa izan omen zen eta hainbat aldiz bisitatu omen zuen erietxea. Zumaiaiko eta kostako herri askotako gaixoak zeuden. Zenbait alditan eskualdeko 15 gaixo ere egon ziren. Ez zegoen senitartekoren bat ospitaleratuta ez zuen familiarik. Horregatik, gaixoei laguntzeko erantzukizuna hartu zuen herriak. Herriko ordezkaritza batek igandero bisita-

tatzen zituen Ekintza katolikoko elkartearen apaiz arduraduna buru zela. Elkar-tearen urteroko jarduketa guztiak, Santa Ageda eguneko abesbatzaren, Gabone-tako abesbatzaren, antzerki-saioen eta abarren helburua, gaixoei laguntzeko dirua biltzea zen. Herriko gaixoei ematen zizkieten opari eta janariak gainerako gaixoeekin partekatzen zituzten. Gaixoen artean adiskidetasuneko eta lagunarte-ko giro ederra zegoen. Baina hori bai, gizonak eta emakumeak erabat aparte zeuden. Trenez eta autobusez egin ohi zuten bidaia. Zumaia tik Zarautzera trenez joaten ziren. Andazarrateraino ozta-ozta eramaten zituzten autobus zahar eta korrokoila hartzen zuten Zarautzen. Don Martzial, erietxeko apaiza, jatorriz Gaz-telakoa zen (gerra aurretik beste apaiz euskaldun bat egon zen). Oso dinamikoa, alaia eta atsegina zen. Argi zegoen bere zeregin nagusietako bat bisitariei txan-goia errepikaraztea zela. Manuelek gogoan du gaixo terminalak isolamenduko pabiloietara eramaten zituztela, Donostiako San Antonio Abad ospitalearen albo-ko “Dockers” izeneko pabiloietara, hain zuzen ere. Han lasai hiltzen ziren, euren gelakideen begi-bistatik aparte. Manuelek bisitatu zituen behin edo behin eta bisita horietako baten oroitzapen mingarria du. Abuztuko igande bat zen. Zumaia ko gazte tuberkuloso bat hiltzen ari zen bitartean, aldameneko Txofre zezen-plazan zezenketa ari ziren egiten, Franco buruzagia bertan zela. Ikusleen oihu, txalo eta oleak entzuten ziren, hiltzorian zegoen gaixoaren arnasestuarrekin kontraste handia egiten zutenak. Amorru handia sentitu zuen.

Kutsatzeari beldur handia zioten. Eraikinetik irten bezain laster, erietxeko lorategietan, gorputza alkoholez igurztera behartzen zituen apaizak, “desinfek-tatzeko”.

Marisol Ugarte Billabonakoak kontatzen du 50eko hamarkadan, nerabea zela, Billabonako apaizak, Ekintza Katolikoko elkartearen bitartez, jarduerak antolatzen zituela erietxeko gaixoei laguntzeko. Urtean hainbat aldiz antolatzen zituzten antzerki-saioak. Herriko Gurea zineman, zartzuelak eta hainbat egileren lanak, Quintero anaienak besteak beste, antzezten zituzten. Goi-mailako saioak izaten ziren, programa, sarrera-salmenta, garaiko jantzi eta abarrekin. 20 eta 30 antzezle bitartean izaten ziren. Urtean behin, egun jakin batean, antzeppen bat egiten zuten erietxean eta urte osoan jasotako diru guztia entregatzen zuten egun horretan.

Honako hau dio Pilar Ugartemendía 84 urteko asteasuarrak: “nire gurasoek, Victoriak eta Antoniok, Andazarrate gainera iritsi baino pixka bat lehenago erre-pide ondoan zegoen Etxebitarte taberna zeukaten”. Hura izan zen inguruko taberna bakarra, 1949an ireki eta erietxea zegoen zelaiaren aldamenean orain-dik martxan dagoen “Buenos Aires” taberna ireki zen arte<sup>5</sup>. Erietxera bisitari asko iristen ziren eta haiei zerbitzu emateko ireki zen taberna Etxebitarte base-rrian. Igandean euren gaixoak bisitatzera joaten zirenei atseden hartzeko eta jateko balio zien. Janariak pilatzen zituzten eta askok han bazkaltzen zuten. Batez beste, 30 bazkari zerbitzatzen zituzten. Oinez joaten ziren Usurbil, Errezil,

---

5. Errepidean beherago beste taberna bat ere bazegoen. Gaur egun irekita jarraitzen du. Olarre-a-goikoa jatetxea da.

Zestoa, Azpeitia, Deba eta beste hainbat herritatik, tabernan bazkaltzen zuten eta arratsaldean erietxea bisitatzeko zuten. Itzultzeko Donostiaraino joaten ziren autobusez eta han etxeraino eramango zituen trenea hartzen zuten. Donostiatik Andazarraterainoko autobus-zerbitzua ere bazegoen: autobus bat ostegunetan eta hiru igandetan. Hiru autobus horietatik bi beteta joaten ziren eta hirugarrena erdi hutsik. Oinez joaten zirenek autobus hori hartzen zuten itzultzeko. Arratsaldetan soinujolea kontratatzen genuen, itzultzeko autobusaren zain zeudenak trikitixarekin eta dantza askatuarekin entretenitzeko eta haiei adorea emateko.

Mertxe Irazusta, 58 urtekoa eta Pilarren alaba. Andazarrateko baserrietako haurrek baserrietako batean prestatutako eskolan ikasten zutelako dio Mertzek. Erietxea itxi zenean, hor bertan, gizonzkoen pabiloi zaharreko mutur batean jarri zuten eskola. Erietxeko kaperaren parrokia gisa erabiliz jarraitu zuten igandeko mezatarak joaten ziren auzotarrek. Erietxea martxan egon zen bitartean, meza denboran, gaixokiko distantzia uzten zen. Jendea atzean esertzen zen, gaixoak aurreko ilaretan eta erietxeko langileak erdian. Behin erietxea itxi eta eskola martxan jarri zenean, ez zen ordena eta zuhurtziaz izaten.

Lehen jaunartzea Asteasun egiten zuten baina haren ondorengo Korpus jaia erietxeko kaperan egindako zeremonia batekin ospatzen zen. Zeremoniaren ondoren prozesioa egiten zen bertako lorategietan barrena (20. ird.).



20. ird. 1958. 1958. Gorpuzti-prozesioa erietxeko lorategietan. Urtero egiten zen erietxe zaharreko eraikinean kokatutako udal-eskola martxan egon zen bitartean.

76 urte dituen Julian Lacunza urte luzean izan zen Tolosako Ekintza Katolikoko Elkartearen lehendakaria eta oso ondo oroitzen ditu esperientzia haiek.

Urte haietan, 40 eta 50eko hamarkadetan alegia, ekintza pastoral ugari egin ohi ziren parrokiari. Eta horien artean toki garrantzitsua hartzen zuen Gaixoen Zerbitzuak. Bide guztiak probatzen genituen sos batzuk lortzeko, eta zenbat eta gehiago lortu, orduan eta hobeto. Zozketak, diru-bilketak, eta baita futboleko kinielak ere egiten genituen lehen mailako taldeekin, eta herriko futbol-ekipoarekin, Tolosa CF-ekin. Jasotako diruaren zati bat saritarako erabiltzen zen, baina beste zati garrantzitsu bat gaixoentzat liburuak, janari osagarriak, etab. erosteko izaten zen. Aldian behin, opari horiek hartu eta ilusioz beterik, Erruki etxera eta Andazarrateko erietxera joaten ginen Erietxerako bisita autobusean egiten genuen. Emanaldiak ere antolatzen saiatzen ginen, gaixoak alaitzeko. Dantza-talderen bat ere ekarri ohi genuen. Behin edo behin "Beotibar orkestra" ospetsua etorri zen gurekin, baita Maria Luisa Irastorza soinu-jolea ere. Neska horrek, artean oraindik nerabea zen arren, bai Euskal herrian eta baita Estatu osoan ere antolatzen ziren akordeoi-txapelketa guztiak irabazi zituen. Parodiak eta antzez-kizunak ere egiten genituen, esate baterako hain ezagunak diren Fernando Amezketarraren ateraldiak, edo baserritar ezjakin baina azkarraren eta jauntxo harroko, baina azken finean inozo gertatzen denaren arteko betiko liskarrak. Ondo akordatzen naiz erietxeko erizain eta langileek ematen ziguten aholkua, alegia saia gintezela gure aurpegia gaixoena baino apur bat goraxeago mantentzen, izan ere gaixoek botatzen zituzten Koch-en baziloei beherantzko bidea egiten baitzuten.

Paulo Recondo pertsona ona, samurra, lasaia eta oso hurbilekoa bezala gogoratzen dut. Eskarmentu handia zuen. Urte zail haietan, gaixotasunez, premia pertsonalez, prezioz eta bizitzeko irrikaz betetako garai hartan Don Paulo erreferentzia garrantzitsua izan zen eskualde osoan. Gaixo askoren osasuna hobetu zuen. Andazarrate eta Yurreamendiko erietxeen buru izan zen bitartean egindako lanak arrasto sakona utzi zuen denen artean. Bere lanak pertsona guztiari aintzatespena eta esker ona jaso zuen. Eta maitasun horren froga gisa, esan beharra dago kale bati bere izena eman ziotela.

## 5.6. Langileen bizikidetzak

Medikuak eta praktikanteak gizonezkoentzat jarritako ipar-hegalaren atzeko etxe txikian edo txaletean bizi ziren. Gainerako laguntzaileak, bestalde, erietxearen erdiko zonaren atzean kokatutako beste txalet batean bizi ziren. Laguntzaile horiek bertan bizi ziren. Gehienak herrialdekoak ziren, baina ez zegoen Andazarrate edo Asteasuko bat bera ere. Hil eta Asteasun lurperatutako gaixoen kopuru handiak gaixotasunarekiko beldur ia irrazionala sortzen zien. Pilar Ugartemendiak dio langile haien lana aparta zela. Lan ikaragarria egin behar izaten zuten, oso zeregin desatseginetan. Andazarrateko auzotarrek behin eta berriz gogorazten omen zieten Pilarren gurasoei arriskutsua zela erietxeko jendearekin, langileekin eta bisitariekin harremanak izatea. Hala ere, bere 11 anai-arrebetako bakar batek ere ez zuen gaixotasuna harrapatu. Gaur egun ere oraindik esaten da herrian garai hartan egunero lurperatzen zela gaixoren bat.

Praktikanteak noiz edo noiz ateratzen ziren erietxetik. Paulo eta San Emeterio medikuek, aldiz, egunak txandakatuz egiten zuten lan. San Emeterio Donos-

tian bizi zen. Gidatzen ez zekienez, txoferra zuen. Paulok bere autoa gidatzen zuen, “topolino” deituriko autoa. Bere egun libreetan, Tolosako erruki-etxeko tuberkulosoen pabiloira joaten zen.

Roman praktikantea, “Romantxiki”, Zumarragan jaio zen eta asko maite zuten denek. Baita tabernakoek ere. Ilunabar askotan, Roman tabernara joaten zen bere lankideren batekin taloa eta esnea jatera. 50eko hamarkadaren hasieran, bospasei urteko umea nintzela (Jose Antonio Recondoren lekukotza), “osaba Roman” ezagutu nuen. Nire aita eta bera oso ondo konpontzen ziren elkarrekin. Biek utzi zioten erietxean lan egiteari eta herri desberdinetan ari ziren. Bata Zumarragan eta bestea Tolosan. Gogoan dut Roman maiz etortzen zela gure etxean bazkaltzera. Nire gurasoek oso ondo tratatzen zuten eta hura oso txeratsua zen guztiokin.

Abilio Vazquez oso pertsona langilea zen. Apala zen jatorriz eta berak bakarririk egin behar izan zuen aurrera bizimoduan. Nire aitaren liburuak erabiliz, bere kontura egin zituen medikuntzako ikasketak eta gero dentista egin zen. Pertsonalki ezagutu nuen 60ko hamarkadaren hasieran (Jose Antonio Recondoren lekukotza). Ni medikuntzako lehen urtea ari nintzen egiten. Abilio dentista ospetsua zen eta Valladolideko, hau da, bere jaioterriko gizarteko gailenenak zituen bere bezeroen artean. Beti bazkaltzera gonbidatu nahi izaten ninduen nire aitaren eta haren ingurukoen berri jakiteko. Ikasketetan eman zion laguntzagatik nire aitarekin zorretan zegoela uste zuen. Beraz, niregatik egiten zuen guztia gutxi iruditzen zitzaion. Hainbat irakasgaitan gomendatu ninduen eta ni bezala medikuntza ikasten ari zen bere iloba baten pisuan sartzeko aukera bilatu zidan.

### **5.7. Paulo Recondo doktorearen irudia**

Emiliano Eizaguirre doktorea, antolaketa- eta lanbide-mailako lan eskerga egiten ari zen bitartean, hautatutako ikasle-taldea prestatzen ari zen. Zorrotza eta zehatza zen. Erabateko entrega eskatzen zuen. Horren truke bere jakinduria guztia transmititzen zuen ezer gorde gabe.

Emiliano urte asko aurreratu zitzaizen guztiei eta fisiologo on batek alderdi klinikoak nahiz kirurgia-teknikak menderatu behar zituela erabaki zuen. Aitzindari izan zen Espainiako torax-kirurgian. Oso goiz, 20ko hamarkadan, pneumotorax eta torakoplastia teknikak menderatu eta erabiltzen zituen, garai hartan Espainian hasten ari zirenak.

Bere ikasleek, Paulo Recondo eta San Emeterio tartean zirela, erabateko prestakuntza izan zuten, oso ona garai hartarako.

Paulok oso gazte zela hartu behar izan zuen bere gain tuberkulosiaren kontrako probintziako erietxe handiena hasiera-hasieratik zuzentzeko erantzukizuna, 24 urterekin hain zuzen ere. Gaixo tuberkulosoentzako ohe-premia ikaragarria zen unean sortu zen erietxe hori. Ia familia guztiek zuten gaixoren bat. Eta gaixo hura kutsadura-iturri ziurra zen.

Erietxeko langile guztiak gazteak ziren eta lanerako gogoia zuten. Elkarrekin oso ondo konpontzen ziren kidez osatutako taldea eratu zen. Entrega ikaragariarekin egin zuen lan. Gaixoei ilusioa eta adiskidetasuna transmititzen jakin zuen.

Paulo, erietxeko lanetatik libre zegoen orduetan, Tolosako erruki-etxeko tuberkulosoen pabiloiaz arduratzen zen. Han ezagutu zuen gerra-garaian Maria Luisa Bravo, ospitale militarreko erizain boluntarioa, gero bere emaztea izango zena.

Paulok gauza asko ikasi zituen Emilianorengandik. Medikuntzako kontzeptu asko jaso zituen, jakina, baina batik bat eginbeharraren zentzua, sakrifiziorako espiritua, zorrotasuna eta zehaztasun zientifikoaren bilaketa jaso zituen Emilianorengandik.

Emilianorekin alderatuta oso ezaugarri desberdinak zituen. Ez zen mediku akademikoa, ez zuen distira izan nahi auditorioetan edo aretoko giroetan. Seguruenik axola ez zitzaizkion eguneroko bizimoduko gauza askotarako despistatua eta baldarra zen. Pertsona herabea, apala eta oso gízatiarra zen. Lanbidea eta giza harremanak ziren bere alderik onena. Zoriontsua eta optimista zen. Gaixoari konfiantza eta hurbiltasuna transmititzen zekien. Begi kliniko onaren ospea zuen. Fededunek Aita Santuaren hitzak hartzen dituzten bezala hartzen zituzten kontuan gaixoek bere iritziak eta aholkuak.

Gaioxengana hurbiltzeko modua berezia eta pertsonala zen eta emaitza onak ematen zizkion, berak naturaltasunez, aurrez pentsatu gabe egiten bazuen ere. Gaixoa bere gaixotasunagatik eta gaixotasunak berekin zituen arazoengatik larrituta joaten zitzaion. Paulok, hasteko, bere izaera despistatuagatik gertatzen zitzaizkion bitxikeria ugarietako bat kontatzen zion eta biek barre egiten zuten. Horrela, gaixoak konfiantza hartzen zuen eta lasaitu egiten zen. Eta bere kontu medikuak, emozionalak, familiarak eta gainerakoak botatzen hasten zen. Askotan, gaixoak arazo ekonomikoak ere izaten zituen eta Paulok laguntzeko modua bilatzen zuen, baina gaixoaren buru-estimua mindu gabe.

## **6. ASTEASUKO ERREGISTRO ZIBILA. HERIOTZAK ERIETXEAN ETA ETXEETAN**

Andazarrateko erietxean hildako ia denak Asteasuko hilerrian lurperatu zituzten. Guztien berri jasota geratu da erregistro zibilean.

Erietxearen jarduerak iraun zuen aldi luzean, 21 urtetan hain zuzen ere, 739 heriotza erregistratu ziren. Horietatik, 471 erietxean hildakoak ziren eta 268 etxeetan hildakoak. Tuberkulosiak jota erietxean hiltzen zirenen urteko kopurua 20z azpikoa izan zen, 40ko hamarkadan izan ezik, garai hartan 25 lagunetik gora hiltzen baitziren urtean. 1951tik aurrera nabarmen murriztu zen hildakoen kopurua.

Herrian zabalduta dago egunero hiletaren bat egiten zeneko ustea edo oriztapena, bai herritarren batena edo erietxean ingresatutako gaixoren batena. Baina hori ez zen egia. Estatistikoki, 9 egunetik behin izan zen hildako bat. Herri-tarrei iruditzen zitzaien heriotza gehiago izaten zirela, urteko garai jakin batzue-

tan pilatzen zirelako. Egun askotan izan ziren bi hildako ere. Hildako batzuek, kristauak ez zirenez, ez zuten hiletarik izan eta ez zituzten hilerrian lurperatu.

Hildakoen adinari dagokionez, erietxean hildako asko gazteak ziren, batzuk 15 urtekoak. Herrian hildako gehienak, aldiz, adinekoak ziren. Erietxean hildakoen % 50, 30 urtez azpikoak ziren eta herrian hildakoen % 60, berriz, 65 urtetik gorakoak.

### **6.1. Gaixoen jatorria**

Teorian, Aldundiaren eta Estatuaren arteko akordioa zegoen ohe-okupaziorako. Oheen % 70 probintzian jaiotakoentzakoak ziren eta gainerako % 30 Espainiako beste eskualde batzuetatik etorritakoentzakoak. Hala ere, erregistro zibilean egiaztatu dugunez, hildakoen % 10 baino ez ziren beste probintzia batzuetan helbidertutakoak. Gaixo kanpotar horietako asko ezusteko zirkunstantziengatik ospitaleratu ziren gure erietxean. Gaixotu zirenean,aldi baterako zeuden probintzian, lanen bat egiten edo bertara destinatuta zeudelako. Hori zen guardia zibil, karabinero, marinel, treneko langile, txofer, zerbitzari eta beste askoren kasua.

Susmoa dugu, baieztatu ez dugun arren, beste probintzia batzuetan bizi ziren askok Gipuzkoan bizi zirela adierazten zutela errazago edo lehenago onartuak izateko. Hemen bizi ziren senitartekoen laguntza ere izaten zuten.

Erietxea sortu zenetik, heriotza asko eta asko Donostiatik etorritako tuberkulosoenak ziren. Eta logikoa da hori horrela izatea, izan ere, hiriburuko tuberkulosoen kopurua probintziako gainerakoena baino handiagoa baitzen. Baditugu hori baieztatzen duten 40ko hamarkadako tuberkulosiagatiko heriotzen zifrak (ikus 21. orrialdeko grafikoa). Hiriburuko San Antonio Abad ospitalean, 40 ohe zeuden tuberkulosoentzako. Gero, umeentzako “docker” pabiloiaren zerbitzua martxan jarri zenean, 60 ohera iritsi zen edukiera. 1942an Nuestra Señora de las Mercedes erietxea jarri zen martxan 100 oherekin, baina hori ere ez zen nahikoa izan hiriburuko premia guztiei erantzuteko, Asteasuko erregistro zibilean garai hartan hildako donostiar ugari aurkitzen baitira behin eta berriz.

Tolosako jendea ere hil zen Erietxean, eta hasiera-hasieratik gainera, Yurrea-mendiko erruki-etxean tuberkulosoentzako pabiloia zegoen arren. Hasieran 20 ohe zituen pabiloiak eta gero 34.

1943 arte ez da agertzen erregistroan Eibartik joandako hildakorik. Eibarko erietxeak 44 ohe zituen eta hango premia guztiei erantzuten zien. 1942an itxi zenean, gaixo tuberkuloso gizonetakoak Andazarrateko erietxean ospitaleratu zituzten. Litekeena da Eibarko tuberkuloso batzuk Bizkaiko erietxeetan ospitaleratzea, hurbilago zituzten-eta.

### **6.2. Tuberkulosia erietxeko langileetan**

Tuberkulosiaz hildako enplegatu bakarraren kasua aurkitu dugu: 29 urteko Florencia Izazuegi Lasaga lekaimearena. 29 urte zituela hil zen hesteetako

tuberkulosiak jota, 1939ko ekainaren 23an. Lehen begiratuan harrigarria dirudi enplegatuen artean kutsapen-kasu gehiago ez izatea. Baina badu bere azalpena. 1931n BCG txertoaren erabilera Espainian hedatu zenetik, gaixotasuna harra-patzeko arrisku handiena zuten pertsona guztiei jarri zitzairen, hau da, jaioberriei eta osasun-langileei.

### **6.3. Gaixo tuberkulosoak eta egoera sozio-ekonomikoa**

Tuberkulosiaz hildakoen artean klase sozial guztietakoak izan ziren. Batzuk, gainera, egoera ekonomiko aski onekoak ziren: industrialak, profesionalak, apa-rejadoreak, ikasleak, bitxigileak, ile-apaintzaileak, etab. Baina hildako gehienak egoera sozio-ekonomiko apalekoak ziren eta horietako asko etorkinak. Normalean, behar adina diru-baliabide zuten familiak, nahiago izaten zuten gaixoa etxean edukitzea. Hildakoen artean ohikoak ziren jornaleko langileak, marinela, nekazariak, askotariko ofizioak zituzten langileak, etab. Klase langileen artean eta, bereziki, etorkinen artean, gaixotasuna hartzea errazten zuten baldintzak izaten ziren, besteak beste, pilaketa, etxebizitza txikiak eta gutxi aireztatutakoak, higiene-falta, elikadura eskasa, etab. Etorkinek bazuten beste desabantaila bat ere: tuberkulosi-intzidentzia txikiko eskualdeetatik etorritakoak zirenez, ez zituztela garatu gaixotasunaren kontrako defentsak edo antigorputzak.

Jatorri apaleko hildako horietako askoren familietan egoera gogorrek bizi izan zituzten. Erregistro zibilean aurkitu dugu Tolosan bizi zen Guillermo Picado Sanchez 35 urterekin hil zela erietxean, alarguna eta 6 seme-alaba utzita. Zorte gehiago izan zuen oraindik bizi den Pilar Iturbe izenekoaren familiak. 18 urte zituela ezkondu zen Hondarribian bizi zen Eusebio Urdanibia 25 urteko marinelarekin. Eusebiok tuberkulosia harrapatu eta denbora gutxira jaio zen euren alaba. Andazarrateko erietxean ospitaleratu zuten, eta berarekin joan ziren ama-alabak. Erietxean egoten utzi zieten biei, amak barneko neskame gisa lan egitearen truke. Lekaimiek lagundu zioten alaba hazten.

Eusebio 1948ko irailaren 20an hil zen. Emazteak Eusebio Cortajarena erietxeko atezaina ezagutzeko zortea izan zuen. Ezkondu eta Cortajarena familiaren Amenabar baserrian bizi izan ziren. Oraindik bizi diren seme-alaba gehiago izan zituzten eta oso zoriontsuak izan ziren.

### **6.4. Tuberkulosoak Asteasuko herritarren artean**

Tuberkulosiak eragindako 9 hildako aurkitu ditugu Asteasuko herritarren artean. 1939an (3 kasu), 1940an (2 kasu), 1943an (2 kasu), 1945ean (kasu bat) eta 1948an (kasu bat) gertatu ziren. Bi azkenekoak soilik hil ziren erietxean. Gainerakoak euren etxeetan hil ziren. Sendatutako tuberkulosen kasu gehiago izango zirela uste dugu, baina beste arrazoi edo gaixotasunen baten ondorioz hilko zirenez, ez dira erregistro zibilean ageri.

Gertaera horrek adierazten du garai hartako gizarteak zer pentsatzen zuen tuberkulosiari buruz. Jendeak ez zuen nahi izaten euren senitartekoak etxetik atera eta erietxeetan sartzea. Eta ez hori bakarrik, familiak, euren kideen artean



tuberkulosoren bat zegoela ezkututzen ahalegintzen ziren. Familia askok medikua presionatzen zuten tuberkulosiagatik hil zela jarri beharrean birika-kongestioagatik, pneumoniagatik, gripeagatik edo beste arrazoiren batengatik hil zela ziurta zezan. Bilbon izan zen Espainiako tuberkulosi-intzidentziarik handiena, tuberkulosiagatik 12,2 heriotza 1.000 biztanleko 1930ean. Baina erregistro zibilean aipatutako gaixotasunetako batekin hiltzen zirenen bostetik bat tuberkulosi-kasuak zirela kalkulatu da gaur egun, medikuak eta familiak isilpean gordetzen saiatzen zirenak (16).

### **6.5. Arartegabeko heriotza-kausak hildako tuberkulosoetan**

Erietxean hil ziren gaixo tuberkuloso gehienak tuberkulosiagatik hil ziren. Heriotza-erregistroan ageri dira haien arartegabeko heriotza-kausak. Kasuen % 70ean bihotz eta arnas gutxiegitasunari, ahuleria tisikoari edo kakexiari leporatzen zitzaion heriotza. Gainerako kasuetan honako kausa hauek izaten ziren: hemoptisia % 7, meningitisa % 5, hesteetako tuberkulosia % 5, pleura eta biriken zulaketagatik pneumotoraxa, laringitisa % 1,5, etab. Kirurgiaren berehalako konplikazioagatik ere izaten ziren heriotzak, esaterako, odoljarioagatik (4 kasu) eta gas-enboliagatik (3 kasu).

Birikaz kanpoko tuberkulosi mota horietako asko ez dira agertzen gaur egun. Antibiotikoen aurreko garaikoak dira. Garai hartan erietxeek izaten zuten itxura danteskoa zen. Gaixotasuna hainbat organotara zabaldua zuten gaixoak ikusten ziren: garunera, giltzurrunetara, hesteetara, laringera, hezurretara, etab. Haien gorpuzkera argal edo kakektikoak nazien sarraskitze-esparruetako presoek itxura ematen zien.

Hesteetako tuberkulosia modu primarioan har zitekeen, infektatutako behi baten esnea irakin gabe hartzeagatik. Hala ere, biriketako tuberkulosia zabal-tzeagatik gertatzea zen ohikoena, hain zuzen ere, gaixoak bere karkaxa irentsita. Laringitisa ere horren antzera gertatzen zen, gaixoak eztula egitean bere karkaxarekin infektatuta, alegia. Izan ere, laringeko eta hesteetako tuberkulosia askotan elkarrekin agertzen ziren tuberkulosi aurreratua zuten gaixoetan.

Meningitisa, bestalde, ez zen izaten tuberkulosi aurreratuaren ondorioz gaixotasuna agertzeko modua. Umeetan agertzen zen gehienbat. Biriketako aurreneko foku edo kontaktu bat odolaren bitartez garunera zabaltzen zenean sortzen zen (tuberkulosiagatik lehen infekzioan zehar). Oso larria izaten zen eta umea, gehienetan, aste gutxitan hiltzen zen.

Gas-enbolia pneumotorax terapeutikoaren konplikazioa izaten zen, baina ez zen oso ohikoa. Pleuren arteko espazioan airea sartzean, oharkabean birika zulatu eta hodi batean airea sartzen zenean gertatzen zen.

## **7. TUBERKULOSIAREN KONTRAKO ERIETXEAK ANTIBIOTIKOAK AGERTU ONDOREN**

Berrogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, penizilinarekin eta tuberkulosatikoen erabilerak ospitaleratutako gaixo tuberkulosoek hobekuntza nabarmen-

na ekarri zuen. Kasu asko sendatzea, hilkortasun-tasak asko murriztea eta gai-xoen ospitaleratze-denbora 6 eta 9 hilabete arteko denboraldira laburtzea lortu zen. Ordura arte erietxeetan egiten ziren egonaldiak denbora luzean iraun zeza-keten, bi urtetik gorakoak izan baitzitezkeen.

Kirurgia osoagoa eta erasotzaileagoa egiten hasi zen. Birika-erazketa par-tzialak egiten hasi ziren, lesio edo leize tuberkulosoak zegoen alderdia edo birika-gingila kenduta. Antibiotikoen estaldurak lehen hain ohikoak ziren operazio ondoko infekzioak saihesten zituen. Horrela, kirurgiaren hilkortasuna eta pertsonal-premia murrizten ziren. Ordura arte langile asko behar izaten ziren operazio-ko zaurien sendaketa amaigabeak egiteko. Heriotzak izugarri murriztu ziren. Andazarrateko edo "uztailaren 18a" izeneko erietxean, 1945ko 33 hildakoetatik 1953ko 11 hildakoetara murriztu zen kopurua. Gauza bera gertatu zen Nuestra Señora de las Mercedes erietxean, 1945ko 22 hildakoetatik 1953ko 9 hildako-etara murriztu zen kopurua (20, Asteasuko erregistro zibila).

1951ko urtarrietik 1956ko maiatzera bitartean, Luis Martinez de Salinas doktorea izan zen Andazarrateko erietxe zuzendaria. 36 urterekin hasi zen ber-tan lanean. Ordurako fisiologo eta toraxeko kirurgialari aditua zen, bere presta-kuntza atzerrian egindako espezializazio-kurtsoekin osatu zuena. Amarako Torax Ospitaleko zuzendari gisa jarraitu zuen bere karrera distiratsua egiten, probintziako torax-kirurgian urte askotan erreferente izan zen ospitalean hain zuzen ere.

Gerran eta gerra ostean asko ugaltu ziren tuberkulosia eta beste gaixotasun kutsakor batzuk, esaterako, sukar tifoidea, exantema-tifusa, nafarrerria eta gaixo-tasun benereok (20).

Jendearen joan etorriek, milaka lagun batera eta bestera ibiltzeak, batzuk tal-de batean edo bestean borrokatzeko eta besteak gerratik ihes egiteko, gaixota-sunak transmititzen lagundu zuen. Garra ostean, gosetea, behartutako langile-batailoiak eta kartzela batetik bestera eramandako presoak izan ziren gaixota-sun kutsakorrek ugaltzen lagundu zuten faktoreetako batzuk. Honako grafiko honek erakusten digu 1941 eta 1951 arteko gerra osteko urteetan Donostian eta Probintzian tuberkulosiagatik hildakoen kopuruen eboluzioa (20).

#### Tuberkulosia. Heriotza-tasa

Urteak	Don. biz.	Don. her.	Don. % (*)	Prob. biz.	Prob. her.	Prob. % (*)
1941	107.957	97	8,9	225.968	92	4
1942		127	11,7		116	5,11
1943		120	11,4		82	3,6
1944		91	8,4		78	3,4
1945		112	10,3		70	3
1946		94	8,7		40	1,7
1947		87	8		51	2,2
1948		121	11,2		71	3,1
1949		115	10,6		63	2,7
1950		99	8,7		52	1,9
1951	113.776	84	7,3	260.264	44	0,8

(\*) Heriotzen portzentajea 10.000 biztanleko.

## BIBLIOGRAFIA

1. Tuberkulosiaren historia. Wikipedia, entziklopedia librea.
2. BÁGUENA CERVELLERA, M. S. "La tuberculosis y la historia". *Osasunaren zientzien bilduma historikoa*. Uriach fundazioa.
3. MUJICA. "Tuberculosis en el País Vasco". *Euskalerrriaren Alde*.
4. ARTEAGA GONZÁLEZ, J.L. "Miserias, miasmas y microbios. Las topografías médicas y el estudio del medio ambiente en el siglo XIX". *Neokritikoa*. 1995.
5. SAURET, J. "La cura sanatorial de la tuberculosis". *Enfermedades Emergentes* 3 (4). 2001 Bartzelona.
6. SAURET J. *La tuberculosis a través de la historia*. Rayma D.L. 1990
7. VARA CUADRADO, F. Apuntes históricos sobre la cirugía de la tuberculosis pulmonar. *Revista de Patología Respiratoria*. 8. lib. Number 1. 2005.
8. AZCOYTIA, C. *Historia del hambre en España tras la guerra. Grupo gastronauta*.
9. MARTÍNEZ MARTÍN, M.A. *Guipúzcoa en la vanguardia del reformismo social, beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*.
10. ROQUERO USSIA, M.R. *La beneficencia en San Sebastián*. Donostia: Kutxa Fundazioa. 2000.
11. Yurreamendiko erruki-etxeako artxiboa. Tolosa.
12. URQUIA ETXABE, José M<sup>º</sup>. *Vida y obra del doctor Emiliano Eizaguirre*.
13. Gipuzkoako Foru Aldundiko Administrazio Artxiboa.
14. RECONDO PONTE, P. "Laburpen biografikoa: Emiliano Eizaguirre doktorea". *Medikuen ahotsa* 6. zk. 1974.
15. Emiliano Eizaguirre. Cartilla antituberculosa. Donostia: La Voz de Guipuzcoaren inprimategia.
16. VILLANUEVA EDO, A. *Historia social de la tuberculosis en Vizcaya*. Bizkaiko Foru Aldundia.
17. MALDONADO, H.; HERNÁNDEZ, M. *Memorias de un sanatorio antituberculoso*. Biomedikoa. 24. lib. Gehig. Bogotá, 2004.
18. *Fronte Popularraren aldizkaria*.
19. GARCÍA VÉLEZ. *Ocho años en la jefatura de sanidad. 1937tik 1944ra bitarteko urteei dagokien memoria*. Osasun Guipuzcoa.
20. GARCÍA VÉLEZ. *1944tik 1952ra bitarteko urteei dagokien memoria*. Osasun Guipuzcoa.

## LEKUKOTZAK

María Luisa Irastorza  
Manuel Aizpurua  
María Soledad Ugarte  
Pilar Ugartemendia

Mercedes Irazusta  
Bautista Cortajarena  
Luis Martínez de Salinas  
Julian Lacunza  
José Antonio Recondo  
Familia Recondo

### **ESKER ONAK**

Xabier Lasquibarri (Aranzadi) eta Pilar Legarrari (Asteasuko Udala), jaso dudan laguntza eskuzabal eta eraginkorragatik.

**Salud y Sociedad. Inmigración y Atención Sanitaria**  
(8ª Jornadas. Bilbao, 2008)

---